BERMEOKO LAMERAN KOMUN AUTOGARBIGARRI BATEN HORNIDURA ETA INSTALAZIOA ETA ONDORENGO MANTENUA KONTRATATZEKO EZAUGARRI TEKNIKOEN BALDINTZA-AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea Bermeoko Lamerarako kanpoko pixatokiak dituen komun autogarbigarri baten hornidura eta bere instalazioa egitea da, hala nola, komunaren mantenu-zerbitzua.

Elementu bakar baten hornidura eta instalazioari dagokionez, kontratu honetan ez dago loteetan banatzeko aukerarik, bere osotasunean enpresa hornitzaileak egingo baitu.

Kontratu misto bat da, komunaren hornidura eta instalazio zein horren mantenu-zerbitzua batzen duena. Edonola ere, kontratuaren zati nagusiena hornidurari dagokio.

2. INSTALAZIOA. EZAUGARRI TEKNIKOAK

LEKUA:

Bermeoko Lamera

KOKAPEN ZEHATZA:

Lamerako hego ekialdean, bus geralekuaren ondoan

Ikusi planoak (I Eranskina)

DESKRIBAPENA. EZAUGARRIAK:

Ekintza honen bitartez jarriko den komun autogarbigarriak pixalekuak izango ditu kanpoan. Ezaugarri teknikoak honakoak dira:

- Erabiliko diren materialak lehen kalitatezkoak izango dira, iragazgaitzak, ez-xurgatzaileak, antibandalikoak, higadurarekiko erresistenteak, solidoak eta kanpoko eragileek aldatu ezin dituztenak (garbiketan eta desinfekzioan erabili ohi diren azidoak eta alkaliak barne).

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J
CSV: 07E6000A657D00Q2Y2B0S0I6H4

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000A657D00Q2Y2B0S0I6H4

Sinadurea eta datea
BERMEOKO UDALA(P4802100J-BERMEOKO UDALA - ZIGILU ELEKTRONIKOA - 17/08/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/08/2022 12:28:23

EXPEDIENTE :: 2022KON_IS_0007
Datea: 31/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Modulua, altzairu galbanizatuzko egiturazkoa, hormigoi armatuzko plaka angeluzuzen baten gainean jarriko da. Modulua gutxienez honelakoa izango da: 3300 (L) x 2200 (A) x 2300 (H)

- Komunak arau hauek beteko ditu: irisgarritasunari buruz indarrean den 20/1997 Legea eta 68/2000 Dekretua; Kode Teknikoan irisgarritasunari buruz diharduen atala; eta Aukera Berdintasunaren, Bazterketarik Ezaren eta Irisgarritasun Unibertsalaren Legea. Barruan biratzeko diametroa: 1800 mm-koa; eta atea 900 mm-koa albo batean.

- Komunaren segurtasun-maila eta erresistentzia bereziki garrantzitsuak izango dira; batez ere kontuan hartuko dira inpaktuekiko, korrosioarekiko eta gradiente termikoarekiko erresistentzia eta horrelako gauzak.

- Kanpoko estaldura korten altzairuzkoa izango da.

- Barruko estaldura beirazko mosaikozala altzairu herdoilgaitzezkoa izango da eta segurtasunerako araudi europarrarekin bat etorriko da.

- Komun publikoan ongi bananduta egongo dira jendearentzako espazioak eta elementu edo egituren espazioak; eta, hala, azken horretara, baimendutako pertsonala bakarrik sartu ahal izango da.

- Jendearentzako espazioak ondorengo elementuak izango ditu:

    - Beirazko mosaikoz ala altzairuherdoilgaitzezko estaldura paretetan eta lurrean. Koloreak zehazteko udal teknikariaren aldetik, gehienbat kolore iluna lurrean eta zuri hautsia paretetan.

    - Argi artifiziala.LED motakoa.

    - Ateko markoan larrialdiko argia, erabiltzaileari irteten laguntzeko.

    - Komunontzia, ingeles erakoa, altzairu herdoilgaitzezkoa, abatimendu automatikoduna eta banakako garbiketa egiten duena. Jarleku autogarbigarria, erabilera bakoitzaren ondoren presioz autodesinfektatu eta automatikoki lehortzen dena.

    - Tapako lehorgailua (emaria: 1.300 m^3/h).

    - Berogailua (termostato bidez erregulatzekoa).

    - Etengabeko aireztapena (emaria: 100 m^3/h).

    - Komuneko paper biodegradagarrirako paperontzia (1.600 paper).

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J
CSV: 07E6000A657D00Q2Y2B0S0I6H4

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000A657D00Q2Y2B0S0I6H4

Sinadurea eta datea
BERMEOKO UDALA(P4802100J-BERMEOKO UDALA)-BERMEOKO UDALA - ZIGILU ELEKTRONIKOA - 17/08/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/08/2022 12:28:23

EXPEDIENTE :: 2022KON_IS_0007
Datea: 31/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Xaboi-ontzia.
- Esekitokia.
- Ispilu arinki inklinatua.
- Lurzorua garbitzeko eta desinfektatzeko gutxienez presiozko 4 ur-irteera.
- Urak desinfektatzailearekin eta desodorantearekin homogeneizatua egon behar du.
- Iturria altzairu herdoilgaitzezkoa eta automatikoa izango da, eta eskuak lehortzekoa haize berokoa. Biak ere eskuak hurbildu eta martxan jartzekoak izango dira.
- Altzairu herdoilgaitzezko barra-euskarri finko eta mugikorra, mugikortasun urriko pertsonentzat.
- Altzairu herdoilgaitzezko ateak, gauerako elektroimanezko sarraila dutenak, ordutegia programatzeko.
- Kanpoko adierazleak (libre, okupatuta edo zerbitzuz kanpo).
- Kanpoan hiru plazako pixatokia, altzairu herdoilgaitzezkoa eta autogarbigarria, eta manpara babeslea, alboetan panelak dituena eta gainean altzairu herdoilgaitzeko estalkia, ingurutik ezer ez ikusteko.
- Segurtasuneko sakagailua, lurretik 400 mm-ra, atea eskuz ireki ahal izateko.

- Espazio hori antolatzean, komuna ahalik eta errazen zaindu eta garbitzeko moduko diseinua eta materialak erabiliko dira, betiere eskatutako segurtasun neurriak zainduz. Torlojuak bandalismoei aurre egiteko modukoak izango dira.
- Sarrerako atea blindatua izango da, altzairu herdoilgaitz lisokoa eta isolamendu termiko eta akustikoa izango ditu. Instalazioak segurtasun sistema bat izango du, erabiltzailea barruan dagoen bitartean garbitasuneko mekanismoa martxan ez jartzeko. Argi gutxiko orduetan, lokalizazioko argiztapena izango du komunak.
- Komuna itxi/irekitzeko eta segurtasunerako gailuak:
    - Instalazioa ireki eta ixteko ordua jartzeko erloju programagarria, aste osorako programatzeko aukerarekin.

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

CSV: 07E6000A657D00Q2Y2B0S0I6H4

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000A657D00Q2Y2B0S0I6H4

Sinadurea eta datea
BERMEOKO UDALA(P4802100J-BERMEOKO UDALA)-BERMEOKO UDALA - ZIGILU ELEKTRONIKOA - 17/08/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/08/2022 12:28:23

EXPEDIENTE :: 2022KON_IS_0007
Datea: 31/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Komuna okupatuta badago, kanpoan ongi ikusteko moduan adieraziko da, beste pertsona bat sar ez dadin.

- Komuna erabili ondoren, erabiltzailea irten eta gero, atea automatikoki eta guztiz itxiko da, eta kanpoan argi eta garbi adieraziko da "komuna libre" dagoela.

- Komun autogarbigarriak nola funtzionatzen duen jakiteko informazioa, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta braillez, komunaren barruan.

- Edozein arrazoirengatik barruan harrapatuta gelditutako pertsonak erreskatatzeko segurtasun sistema.

- Komuna urrutitik irekitzeko sistema, teleaginte bidez, mantentze-lanetako eta udal langileen eskura.

- Ur presiorik ez dagoenean, komuna automatikoki ixteko sistema.

- Komuna "zerbitzuz kanpo" badago, kanpotik ondo ikusteko moduan adieraziko da, jendeak komunera sartzerik izan ez dezan.

- Erabileraren denbora-muga adierazteko soinu-alarma.

- Zerbitzuak kontatzeko sistema.

- Aireztapen egokia: naturala edo behartua.

- Ur-presioa neurtzeko presostato digitala, komuna ixteko agindua emateko gai izango dena, baldin hornidura mozteko balioak jasotzen baditu.

- Komuna "libre", "okupatuta" edo "zerbitzuz kanpo" dagoela adierazteko seinaleek argia izango dute, argi gutxiko orduetan ongi irakurri ahal izateko.

- Presentzia detektatzeko radarraren autodiagnosi sistema, autogarbiketa prozesuan akatsik ez gertatzeko.

- Eskuak garbitzeko konketan eta kanpoko pixatokian ura hornitzeko zelulek segurtasun sistema bat izango dute, seinalea trabatzen denean etengabeko ur-jariorik ez izateko.

- Konfigurazio irekiko automata, baita GPRS sistemaren akoplamendua ere, instalazioaren urruneko kontrolerako.

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

CSV: 07E6000A657D00Q2Y2B0S0I6H4

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000A657D00Q2Y2B0S0I6H4

Sinadurea eta datea
BERMEOKO UDALA(P4802100J-BERMEOKO UDALA)-BERMEOKO UDALA - ZIGILU ELEKTRONIKOA - 17/08/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/08/2022 12:28:23

EXPEDIENTE :: 2022KON_IS_0007
Datea: 31/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Aukera izatea erabileran izan daitezkeen gorabeherei, akatsei, eta abarrei buruz ohartarazteko.

- Komun autogarbigarriaren horniduran sartuta daude instalatzeko, garraiatzeko eta martxan jartzeko gastuak. Gainera urtebeteko bermea eskatuko da ordezko piezetarako. Zolata batean jarriko da, eta ondorengoak izango ditu: Ø32 edo Ø40 mm-ko ur-hargunea, 3-6 bareko presioa 4-6 KW-ko potentzia elektriko monofasikoa eta Ø125 mm-ko hustubidea, behar den lekuan.

MUNTAIA

Muntaiak alderdi oro estaliko ditu, unitatea guztiz amaituta eta martxan geratuko delarik. Halaber, instaladoreak indarrean dauden segurtasun zertifikatu guztiak eman beharko ditu, kreditatzeko instalazioaren segurtasuna.

3.- KOMUN AUTOGARBIGARRIEN MANTENTZE-ZERBITZUA ETA LAGUNTZA TEKNIKOA

Enpresa lizitatzaileek eskaintza egin beharko dute komun autogarbigarriaren urte osoko mantentze-lanak egiteko, kontuan izanda urtean 4 bisitaldi tekniko egingo direla.

Aurkeztu beharreko dokumentuak mantentze-zerbitzuarn nondik norakoak jaso beharko ditu, zehaztasunez. Halaber, argi eta garbi adieraziko da laguntza teknikoko zerbitzuaren kokapena, aberietarako ordutegia, erantzun-denborak, neurri konpentsatzaileak eta udal teknikariekin zuzeneko harremana izango duen pertsonaren datuak.

Edonola ere, edozein gertaerei erantzuteko denbora 48 ordutik beherakoa izango da, eta 96 ordutik beherakoa, baldin osagaiak aldatu behar badira.

Ikuskapen bakoitzean, gutxienez, honako hauek egin beharko dira:

KANPOALDEAN:

- Kolpeak, mailatuak edo marruskadurak,
- Kristalak apurtuta, sabai-leihoa hondatuta, policarbonatoa kaltetuta.

KABINAREN BARRUAN:

- Garbiketa 5 ziklo gutxienez egin.
- Honako hauen egoera eta funtzionamendua egiaztatzea:
  - ✓ Nibelazioa.
  - ✓ Lur-hartunea.
  - ✓ Sarraila magnetikoa.
  - ✓ Argiak.

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

CSV: 07E6000A657D00Q2Y2B0S0I6H4

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000A657D00Q2Y2B0S0I6H4

Sinadurea eta datea
BERMEOKO UDALA(P4802100J-BERMEOKO UDALA)-BERMEOKO UDALA - ZIGILU ELEKTRONIKOA - 17/08/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/08/2022 12:28:23

EXPEDIENTE :: 2022KON_IS_0007
Datea: 31/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- ✓ Aireztapena.
- ✓ Presentzia detektatzeko fotozelulak (radarra).
- ✓ Konketa.
- ✓ Paper-banatzailea.
- ✓ Irteerako sakagailua.
- ✓ Esekitokiak.
- ✓ Autogarbiketarako pitak.
- ✓ Zokaloaren estankotasuna, zoruko autogarbiketa.

LOKAL TEKNIKOA:

- Honako hauen egoera eta funtzionamendua egiaztatzea:
  - ✓ Sarraila.
  - ✓ Atetxoak.
  - ✓ Kuadroaren egoera. Isuri-eza.
  - ✓ Suntsikorren egoera eta funtzionamendua.
  - ✓ Ponpa dosifikatzailearen funtzioamenduraren konprobaketa.
  - ✓ Zisternaren deskarga egiaztatzea.
  - ✓ Komuneko hustubidea egiaztatzea.
  - ✓ Zilindroa eta atea koipeztatzea egiaztatu.
  - ✓ Berrarmatzeko proba egitea.
  - ✓ LARRIADI sistemaren funtzionamenduaren konprobaketa.
  - ✓ Komunaren funtziomendua kaltetu dezaketeen objektuak kendu.
  - ✓ Kontsumigarrien birjarpena.

Mantentze-lanak hiru hilean behin egingo dira. Hala eta guztiz ere, maiztasuna gutxi gorabeherakoa da, izan ere, komunak funtzionamenduan konponketaren bat behar duenean egingo dira mantentze-lanen bisitak.

Mantentze-lanetan piezen aldaketak ere sartuko dira 200€-tara arte, BEZ kanpo.

4.- AURREKONTUA

4.1. Hornidura eta instalazioa egiteko aurrekontua

Hornidura eta instalazioaren aurrekontua **42.400,00€**-koa da, BEZ barik.

BEZari dagokion zenbatekoa 8.904,00€ da.

Guztira, zerga guztiak barne, aurrekontua **51.304,00€**-koa da.

4.2. Mantentze-zerbitzuaren aurrekontua

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J
CSV: 07E6000A657D00Q2Y2B0S0I6H4

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000A657D00Q2Y2B0S0I6H4

Sinadurea eta datea
BERMEOKO UDALA(P4802100J-BERMEOKO UDALA)-BERMEOKO UDALA - ZIGILU ELEKTRONIKOA - 17/08/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/08/2022 12:28:23

EXPEDIENTE :: 2022KON_IS_0007
Datea: 31/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Komunaren urteroko mantentze kontratuaren prezioa, urteko **1.972,00 €**-koa da, BEZ barik.

BEZari dagokion zenbatekoa, urteko, 414,12€ da.

Guztira, zerga guztiak barne, mantenu zerbitzuaren aurrekontua urteko **2.386,12€**-koa da

5.- EPEA

5.1.- Hornidura eta muntaia egiteko epea

Hornidura eta instalazioaren gauzatze-epea **hile bikoa (2)** izango da, gehienez, esleipena egiten den unetik hasita.

5.2.- Mantentze-zerbitzuaren epea

Eman beharreko mantentze-zerbitzuaren epea **hiru (3) urtekoa** izango da, instalazioaren harrera egiten den unetik hasita.

Zerbitzu saileko teknikaria

Data eta sinadura orri-oinean.

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

CSV: 07E6000A657D00Q2Y2B0S0I6H4

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000A657D00Q2Y2B0S0I6H4

Sinadurea eta datea
BERMEOKO UDALA(P4802100J-BERMEOKO UDALA)-BERMEOKO UDALA - ZIGILU ELEKTRONIKOA - 17/08/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/08/2022 12:28:23

EXPEDIENTE :: 2022KON_IS_0007
Datea: 31/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

I ERANSKINA

PLANOAK

Zerbitzu Saila. Intxausti 2 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9129 Faxa: 94 688 1102
zerbitzuak@bermeo.org / www.bermeo.org IFK: P4802100J

CSV: 07E6000A657D00Q2Y2B0S0I6H4

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000A657D00Q2Y2B0S0I6H4

Sinadurea eta datea
BERMEOKO UDALA(P4802100J-BERMEOKO UDALA)-BERMEOKO UDALA - ZIGILU ELEKTRONIKOA - 17/08/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/08/2022 12:28:23

EXPEDIENTE :: 2022KON_IS_0007
Datea: 31/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia